

ORBEL JOKOAK 2023 Kepa Alberdiren artikuluen galderak

- 1.- Gerra zibilean zein azkoitiarrek jarri zuen sutan militarra bere aurrean euskaraz aritzeagatik? **Nemesio Etxaniz apaizak. (Euskara eta debekua, biak bat zirenekoa)**
- 2.- Zein alkatek baimendu zuen dantza lotua(*baltseue*)? **Pedro Alberdi, "Periko Ezkerrak". (Azkoitiko estanpak XX. mendean: Enparantza Nagusia)**
- 3.- Hasera batean nondik ekartzen zuten abarketak egiteko jutea? **Pakistan eta Indiatik. (Azkoitiko abarketarien lan ordainezina)**
- 4.- 1599ko izurritea zergatik izan zen bereziki krudela emakume alargun eta ezkongabeekin? **Agintariak emakume hauetaz baliatzen zirelako izurriak jotakoak zaintzeko.(Emakume azkoitiarren bizitza mutilatuak)**
- 5.- Garai batean zerekin igurzten zuten zakila gizonen sexu harremanak izan aurretik, haurdun ez gelditzeko balioko zuelakoan? **Ozpinarekin (Emakume azkoitiarren bizitza mutilatuak)**
- 6.-Zenbat mugarri ditu Azkoitiak Azpeitiarekin? **63. (Herriko mugak, mugarriak eta bidegurutzeak)**
- 7.- Zein baserri inguruan zegoen Urretxurako bidea markatzen zuen gurutzea ? **Kurutzeaga baserria (Herriko mugak, mugarriak eta bidegurutzeak).**
- 8.- Azkoitiko lehen emakume futbol taldearen izena zein izan zen? **Iraurgi Kirolak (Azkoitiko futbolarietara begira, oroitzapen batzuk)**
- 9.- Zenbat diru jokatu zuten Aizpe eta Zakarrak koadriletako kide bakoitzak Alziberko futbol zelaian elkarren aurka jokatu zuten partidari? **Mila duro (Azkoitiko futbolarietara begira, oroitzapen batzuk)**
- 10.- Zenbat urterekin erretiratu zen Joanes Etxeberri idazle eta medikua? **80 urterekin (Medikuak, zirujauak eta botikariak)**
- 11.-Zein izan zen XX. Mendeko lehen laurdeneko Gipuzkoako sasimedikurik ospetsuena? **Sebasitan Aspiazu Unanue "Sakabi" (Medikuak, zirujauak eta botikariak)**
- 12.- Txalintxoko auziaren ondoren, zenbat azkoitiar sartu ziren azpeitiarrak Saninazioetarako Azkoititik antolatutako debaldeko autobusera ? **Pertsona bakarra (Azkoitiarren eta azpeitiarren arteko istoriotxoak).**

13.- Txantxangorriaren “antzeko” ze animalik egin zuen hegan aldameneko herrian? Txangurroak (Azkoitiarren eta azpeitiarren arteko istoriotxoak)

14.- Azkoitiko ikur bihurtu den Barriken iturria finantzatzeko zer saldu behar izan zuen udalak? Telleritxuko garo saila (Herriko iturriak, iturburuak eta garbitegiak)

15.- Zein auzoetan dago garai batean garbitoki izan zena eta gaur egun elkarte den eraikina? Samartin auzoan (Herriko iturriak, iturburuak eta garbitegiak)